

MAIATZ, euskal emakume sortzaileen leihoa



Sareinak taldeak apailatutako mahai-inguruan Itxaro Borda, Amaia Lasa eta Marikita Tambourin mintzatu ziren, Josune Muñozek gidaturik. Otsailaren 23an izan zen hitzordua, Baionako Euskal Museon.



Idazleak saretuz saritu du Maiatzek emakumea

MUSEOKO LEIHOEZ bestaldean elurra mara-mara ari zueno, *Maiatz, euskal emakume sortzaileen leihoa* lema-pean ari ginen literaturaren mentura zaleok: hogeita bost emazteki inguru eta lau gizon. Literatura eta emakumea zen gaia. Sareinak taldeak saretu literatura zen objektua, *Maiatz* aldizkarian nahiz liburuetan parte hartu duten emakume idazleak subjektu. Literatur sistema, kritika literarioa, ideologiak... hizpide.

*Maiatz*en historiaren eta istorioen berri kontatu ziguten mahaikideek emeki. 1980ko hamarkadan euskal literaturaren sareak zulo asko zuela erran zuten. Alabaina, literaturaren sistemara jostun eme anitz bildu da harrezkero, zorionez. *Maiatz*ek orori jostorratza eman dio eta saretutako testuen %30 emakumeek harilkatu dute. Sarea ez da Iparraldean soilik harildu gainera, Hegoaldeko idazleek ere sorleku izan dute *Maiatz*. Anartean, Hegoaldean izan dira ere literatur aldizkariak. *Susa*, konparazione. Alta, emetasun ezaugarri izanik ere, *Susa* gizonen biltoki izan zen batez ere.

1970eko hamarkadara arte, apezek eta notablek baino ez zuten literatura egiten Iparraldean. *Herria* zen euskaldunon erreferentzia nagusia, ez haatik gaitzetsia. Literatur eremua

basamortua zen, eta are basagoa emakume idazle bakanentzat. Hegoaldetarrak frankismotik ateratzeko ahaleginetan ari zireno, Iparraldekoak François Mitterranden sarean zabuka hasi ziren. Laborarien seme-alabak plazaratu ziren idazle gisa, baita hiriko bizizale bilakatu ere. Ilusioa bazen, eta ez txikia. Nahiz eta ilusioa –Itxaro Bordak zioenez– galorra izaten den, bikoteetan agitu bezala. *Maiatz*ek idazleen askatasuna zabaldu zuen, emakume idazlearena partikulariki. Eta ilusio hura emeki ari du egun, elur malutak antzo, ilusioak segitzen du euren baitan.

Marikita Tambourinek esperantzari irekitako leihoaren gisara azaldu zuen *Maiatz*. Kanpoan ilun antzo egonagatik –Oskarbi taldea gogoan– beti atertzen duela erran zuen. Tiraderan geratu testuek argia ikusten dutela noizbait, neguan ez bada maiatzean; emakumeen ahotsez izkiriatuak izanik ere. Berak, gizona izanik ere, Luzien Etchezarreta izan zuen bere testuen kriseilu.

Bere etxean Iparraldea eta Hegoaldea beti izan direla bat erran zuen Amaia Lasak. Bere gurasoak, ez halabeharrez, Baionako Katedralean ezkondu baitziren, aitatxi-ama-txi frankismoarengandik iheslariak izaki. Ez alferrik. *Maiatz* Lasaren

literatura etxea bilakatu da, ez alferrik ere, Amaia Lasa *Maiatz* sarean irakurleak biltzen –hots, harpidedunak egiten– saiatzen da.

Maiatz etxean espresio guztiak sartzen dira: euskara batuan nahiz euskalkietan paratuak, baita gure erdaratatik nahiz munduko erdara anitzetik ekarriak ere. Idazleek atxikitzen dute etxea zutik, liburgarraioetan “asto lana” egiten dutenak ahantzi gabe.

Maiatz ez da izaterik Etchezarreta eta Borda gabe. Alta, Itxaroren aburuz, etxeko maizterren –maizter nagusiak biak izaki– ahalegina naturala izan da. Luzienek garrantzia kendu zien subjektuei, pertsonak ez dutela horrenbesteko munta erranez. *Maiatz* garaiko giroan beharrak altxatutako etxea dela argudiatu zuen.

Kanpoan dena ez zen beltz, ez barruan dena zuri ere. Kalean elur maluten antzera aireratu ziren barruan emaztekien izenak, engoitik bertaratu ezin diren pertsona emankorak: Marijane Minaberri, Daniele Albizu edota berriki hil den Helene Etzekopar Etxart. Haren arima gelan kulunkatu zen Amaia Lasaren ahotsean. ■

Mikel Asurmendi

